# ESKULARRU ESTERILAK JANZTEA

- Eskularru-paketea bilgarrian esaten den lekutik zabaldu behar dugu, beti eremu esterilaren barruan, asepsiari eusteko.
- Pertsona eskuina bada, lehenik eskuineko eskularrua jantziko da. Horretarako, ezkerreko eskuaz eskularruaren irekidura altxatuko da. Ezkerreko eskuko atzamarrek eskularruaren zona inbaginatuaren barrualdetik soilik ukitu beharko dute eskularrua.
- Esku nagusiko eskularrua jantzitakoan, ezkerreko eskularrua tolesturatik hartu, eta sarrera altxatu behar da, ezkerreko eskua sartzeko.
- Azkenik, eskularruak eskuetara egokitzen diren modua zuzendu behar da, eroso egoteko eta zereginak arazorik gabe egiteko. Eskularruetako eskumuturrak biak ondo jantzita daudenean igoko dira, kontuan hartuta eskularruen kanpoko aldea baino ezin dugula ukitu.






